



0004 ZBK.



EAJ/PNVk MEDIKU ESPEZIALITATEEN ESKUALDE ZENTROA KOKATZEKO ALTERNATIBAK BILATZEA PLANTEATU DU

Zallako EAJ/PNVk oraingo Gobernu taldeari eskatu dio Medikuek Espezialitate Zentro berria oraingo Anbulatorioa dagoen toki berean kokatzeko hartu duen erabakia ez betetzea. Azaldu dutenez, erabaki honek zera suposatuko luke:



- Espezialitate Zentro hau zabaltzeko aukerak eragozte.
- Ikastetxea handitzeko lanak hipotekatzea
- Ikastetxeko jolasgune eta kirol-gunea murriztea edo/eta desagerraraztea
- Gaur egun jolasgune, jai-gune gisa erabiltzen den plaza murriztea edo desagerraraztea
- Udal merkatua lekuz aldatzea.
- Ikastetxera eta Osasun Zentrora sartzeko oztopatzea
- Herri-guneko trafikoa oztopoz betetzea, Enkarterri osoko herrietatik etorritako autoak sartuko lirakeelako.

- Gaur egun Ikastetxera sartzeko eta bertatik irteteko orduetan aparkatzeko dagoen arazoa handituko litzateke. Horrekin ere, oinezkoentzako arazoak areagotuko lirakeke, Mimetiz Ikastetxe Publikoko neska, mutilak gehien bat. Erabakiak hartzeko orduan, udal gobernu honek alde batera utzi beharko luke errentagarritasun politikoa eta propaganda "pelotazoa". Jarduteko helburu bakarrak izan beharko luke gure Herritarren ongizatea eta garapen ona. Horregatik eta azalduko arrazoiengatik, EAJ/PNV Espezialitate Zentro berria oraingo Osasun Zentroa dagoen tokian kokatzearren kontra dago.

ZALLAKO EAJ-PNVk SOIANO, OTXARAN ETA BESTE AUZOETAKO GARRAIO PUBLIKOA HOBETZEA PROPOSATU DU

Soianoko herritarrek GALLARDI inguruan inolako garraio publikorik ez dutela adierazi diote gure Udal Taldeari.

Beharizan hau, auzo arteko bonotaxi zerbitzu baten bidez konpon liteke. Erabiltzaileek ibiltarte bakoitzeko zenbateko sinbolikoa ordainduko lukete eta Mimetizerraino garraio publikoak joan litezke, bertan FEVErekin lotzeko, edo gune honetan zentralizatzen diren beste zerbitzuak hartzeko.

Proposamen hau, herri-gunetik urrunen dauden auzoetara ere eraman liteke, besteak beste Otxaran, La Magdalena edo Torremonte.


Erabiltzaile potentzialen igoeraren aurrean, eta gune honetan dituzten beharizanak ikusita, EAJ/PNVk Udalari proposatu nahi dio aukera hau aztertzea eta behar besteko gestioak egin ditzala behar honi erantzun egokia emateko.



EUSKO LEGE BILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK EAJ/PNVK ZALLAKO BOTO GUZTIEN % 55 LORTU DU

Parte hartzea % 73koa izan da. Zallako herritarren gehiengoak konfiantza eman dio EAJ/PNVri. Oraingoan 2.599 boto lortu ditu, hau da, boto guztien %55. Zallako EAJ/PNVk Bilduk baino 1.675 boto gehiago eskuratu ditu, eta PSE alderdiak baino ia 2000 boto gehiago.

Zallako EAJ/PNVren Uri Erakundearen aldetik, gure ESKER ONIK zintzoena eta beroena adierazi nahi dizuegu, emaitza hauek errealitate egin duzuenoi. Zalantzarik ez izan, lanean jarraituko dugula egitasmo jeltzaleak gure herriaren eta Aberriaren aldeko lanean aurrera egin dezan.



GORA EUSKADI ASKATUTA!!! GORA EAJ/PNV!!!! MILA ESKER

U HOLDE KASUETAN KALTETUEI ESTALDURA BERMATZEKO KONPONBIDEA EXIJITZEN DUGU

ZALLAKO EAJ/PNVk UDALAREN ETA URA ERAKUNDEAREN ARTEKO AKORDIOAK UHOLDE ARAZOAK KONPONTEA ETA KALTETUEI ONGIZATEA BERMATZEA ESKATU DU

Hauze izan da gure helburuetako bat. URA erakundeak aurreko korporazioari eskatu zion "Urak bideratzeko plana" egin zezala, urak hartu ahal dituen lurren azterketa barnean hartuko zuena. Orduan, horiek libratzeko EZ ZEN BEHARREZKOIA inolako LANIK egitea.

Oraingo gobernu taldearen joan eta etorri artean, araudia aldatu egin da eta URAK aurrekontu oso altuak dituzten lanak egitea exijitzen du.

Urriaren 16ko Osoko Bilkuran, Zallako EAJ/PNVk onartu egin zuen konpromiso bat izenpetu beharra zegoela, baina URA eta Udalaren arteko Akordio markoaren kontra agertu zen.

- Bertan, uholde kasuetan etxetik kanpo geratzen direnentzako berme kopururik eskaintzen ez delako, herritar kaltetuei ez zaie bizitoki aukerak aurkezten, ez da esaten kosteak norik eta nola ordainduko dituen.
- Akordio hau ez delako behar besteko gardentasunaren tramitatu, Erakundearen aldetik "konpromiso irmoak" behar direla esaten da, baina ez da zein eta norekin esaten, eta ez da administrazio ebazpenik aipatzen.
- Eta "aurrekontuen disonibilitatearen" arabera uzten delako, URA Erakundeak eta Zallako udalak lankidetzarako hartu duten konpromisoa beren aurrekontu ahalmenaren arabera uzten dutelako, eta horrek osoko ziurgabetasunean uzten gaitu.

Urte bete eta erdi igaro da, eta Udal hori ez da bat ere eraginkorra izan, ez da udalaren aldeko lan ona egin, ezta herritar guztien ongizatea bilatu ere.



KADAGUA ZALLATIK IGAROTZEN DENEAN

KONEKTA ZAITEZ

<http://www.facebook.com/ZallakoEajPnv>
<http://zalla.eaj-pnv.eu>
zallakoeajpnv@gmail.com
 móvil: 644254665

AKTIBITATE ETA BISITAZ BETETAKO UDAZKENA

